

Egarria asetzeko prest

Etzi irekiko ditu
ateak Irrintzi-ren
X. Garagardo
Azokak ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteazkena ▶ 2006-07-12 ▶ IV. urtea ▶ 935. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Aurkeztu dute Tolosako mapa toponimiko berria

PROIEKTUA ▶ Tolosaren
toponimiaren azterketan
beste pauso bat da egitasmoa

HELBURUA ▶ «Egungo Tolosaren
argazki bat» izan nahi du; «osatu
eta zehaztasun handikoa» da ▶ 2

LEITZA ▶

Amuarrainak hilik agertu dira Erasote errekan

Haztegitik beherako
tarteetan zeuden ▶ 7

Saharako haurrak iritsi dira eskualdera

TOLOSALDEA ▶ Harrera beroa egin diete
uda hemen pasatuko duten 15 gaztetxoei;
aurten bost familia berrik eman dute izena ▶ 6



Miren Ortega. N. URBIZU

ALEGIA ▶

Haizeak mugitutako unek, margoetan islaturik

Miren Ortega artista
beasaindarrak
erakusketa jarri du
Jubilatuen tabernan ▶ 5

I. TERRADILLOS



TOLOSA ▶

Irailera bitarteko gauak musikaz, zinemaz eta dantza ikuskizunez beteko ditu 2006ko Gau Girok

Balen Lopez de Muniainek zabalduko du egitaraua, etzi,
Plaza Berrian; El Gran Ballet Argentino ere etorriko da ▶ 3

ARESO ▶

600ekoari ez dio hasiera ona eman sokatira taldeak

Lehen jardunaldian bosgarren egin
du; larunbatean du hurrengo saioa ▶ 7

GIZARTEA ▶

Mapa toponimiko berria

«Gure lurraldea ezagutzeko ematen den urrats berri bat da hau»

ESTI EZEIZA

Urte beteko lan handiaren ondoren, atzo goizean aurkeztu zuten Tolosako Toponimoen mapa. Bertan izan ziren Onintza Lasa Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, Urko Eloseggi geografoa eta Iñaki Azaldeggi Euskara teknikaria.


Aspalditik zetorren lan baten emaitza da mapa hau; izan ere, Tolosaren toponimian eman den beste urrats bat da. Onintza Lasaren esanetan, «gure lurraldea ezagutzeko eta ezagutzera emateko pauso bat da». Bestalde, «uda, txangoak, eta paseoak emateko garai egokia denez», orain aurkeztu nahi izan dute egitasmoa.

Mapa osatua dela adierazi zuten Udaleko ordezkariak, «zehaztasun eta seriotasun handiz egina, inguruko auzo eta herrien ikuspegi orokorra ere ematen duelarik». Gainera, udalerraren inguruan ematen ari diren urrats berriek ere kontuan hartu dituzte. Horren adibide da azken hilabeteetan Donejakue bidean zehar ipini dituzten seinaleekin bat egin dutela, mapan ere ibilbide hau agertuz. Bestalde, auzo eta zonalde bakoitzaren eremu eta azalera ere zehaztu dituzte agiri honetan.

Hala ere, mapa hau «ez da egitasmo aske bat», honi jarraipen bat emango baitzaio irailen-edo argitaratuko den liburuxka batekin. Honela, «jendearentzat lagungarri izango da, modu atsegingarri batean gauza berriak ezagutzeko».

Dimentsio hauetako proiektu bat egiteko lan handia egin beharra dago, eta baita tresna bereziak erabili ere. Horregatik, zenbait erakunderen la-

ZENBAIT DATU ▶



Tolosako mapa. E. EZEIZA

Eskala. 1:15.000.
Koordinada sistema. UTM (30. zonaldea).
Elipsoidea eta datuma. Nazioartekoa, ED50.
Diseinu kartografikoa. Urko Eloseggi: umapak@gmail.com.
Koordinazioa. Tolosako Udaleko Euskara Zerbitzua.
Toponimia azterketa. Juan Ignacio Eloseggi, Irma Goikoetxea.
Salmenta. Tolosaldea Tour-en.
Prezioa. 1,50 euro.

guntza izan dute: Tolosako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzua, eta Eusko Jaurilaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza.

Alde teknikoak

Urko Eloseggi geografoak proiektuaren alde teknikoa aurkeztu zuen atzo eta, haren esanetan, «inguruko toponimia izenak errejistratzeak eman digu lanik handiena. Toponimia lanak oso luzeak izaten dira, eta gutxitan kalera izaten dira hau zehaztuta duten mapak».



Ezker-eskuin: Iñaki Azaldeggi, Onintza Lasa, eta Urko Eloseggi, atzoko aurkezpenaren. E. EZEIZA

ONINTZA LASA ZINEGOTZIA

«Mapa oso osatua da, zehaztasun eta seriotasun handiz egina; Tolosaren ikuspegi bat ematen du»

Izendatze lana egiterako garaian, gauzak ahalik eta argien ipintzen saiatu dira. Hala, azken urteetan sortutako auzo eta kale izenak bildu dituzte, eta hauek nondik nora mugatzen diren markatu dute.

Egitasmoaren helburuak

Oraingo lan honen helburuetako bat, Tolosak 2005ean duen itxura adieraztea da, «egungo Tolosaren argazki bat egitea». Hala ere, irudi hau, batik bat, oinezkoetan zentratu nahi izan dute. Horregatik, mapa eramangarri bat egin dute, eta disenatzeko garaian hau oso

URKO ELOSEGI MAPAREN ARDURADUNA

«Maparen helburuetako bat Tolosak egun, 2005. urtean erakusten duen itxura adieraztea da»

kontuan hartu dute. Izan ere, irekiz gero, poster edo hormirudi baten itxura du. Eta osoki ireki gabe ere erabili daiteke, zonaldeka banatuta baitago.

Orain arteko mapekin konparatuz gero, berriz, ikusi daiteke honako honek baso eta landa inguruak zeintzuk diren ere agertzen duela. Bestalde, leku-izenak eta toponimoak Tolosako Udalak izendatutako moduan ageri dira. Hau da, Euskaltzaindiak arautzen duenaren arabera.

Egitasmoaren beste xedee-tako bat Tolosako paisaia zein den agertzea ere izan da. Honetarako, azken teknologiak

IÑAKI AZALDEGI EUSKARA TEKNIKARIA

«Tolosak hartzen duen zonaldea oso garbi ikus daiteke, horren adibide da Bedaiko auzoaren kokapena ere»

erabili behar izan diuzte, horien artean, sateliteak eta helikopteroak.

Ingurunea ezagutzuz

Bitxikeriak eta kuriositateak ere biltzen saiatu dira maparen egileak, horien artean, biztanleria datuak, azalera, hedadura... Leku berezi bat ere egin diote Tolosaren herena betetzen duen Bedaio auzoari, nahiz eta hiriko zentruaren lur eremuari lotuta ez egon. Tolosako zonaldea baita. Horregatik, maparen barruan leku berezi bat egin diote, eta honen datuak ere agertzen dira.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalbetetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitetz: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udalbetetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libreak.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

KULTURA ▶

Musika, zinema eta dantza udako gauetan Gau Giroren baitan

Asteburu honetan hasi eta irailera bitarte, sei emanaldi antolatu ditu Tolosako Udalak; guztiak 22:30ean izango dira



El Gran Ballet Argentino Euskal Herria plazan emanaldia eskainiko du, hil honen 27an. HITZA

NOELIA LATABURU

Askorentzat opporraldi sasoi izaten da uda. Haatik, herria zaintzen geratzen denik ere bada. Horiek gogoan hartu eta beste urte batez udako gauetarako egitaraua antolatu du Tolosako Udalak. Giroak eskatzen duen bezala, kanpoaldean

garatuko dituzte hauetariko gehienak. Musikak, dantzak eta zinemak: guztiak du tartea 2006. urteko Gau Giroko egitarauan. Emanaldi hauek guztiak 22:30etik aurrera izango dira, kultur gune ezberdinetan.

Hona hemen, banan bana zehaztuta, uda guztian zehar izango diren ekitaldiak:

MUSIKA

Balen Lopez de Muniain. Lehen emanaldia izango da Balen Lopez de Muniain musikariarena. Etzi, ostiralarekin, Plaza Berriar *Lotuneak* bere bigarren diskoko aurkezpena egingo du. Gitarra-jolea laukotearekin ariko da emanaldian; hala, Geoff Warren saxoan, Salvatore

Maiore biolontxeloarekin eta Joxan Goikoetxea akordeoiarekin izango ditu kide musikari bilbotarrak.

Matt Harding. Abuztuaren 11n izango da musikari estatubatuarren emanaldia, Plaza Berriar. Blues, rock n'roll, country eta jazz doinuak auzkeztuko ditu.

Macjearas. Fronton kafetegian egingo dute saioa Macjearas taldekoek irailaren 1ean. Nueva Orleans taldeko banda honek jazz musika aurkeztuko du.

DANTZA

El Gran Ballet Argentino. Hil honen 27an, osteguna, dantzak hartuko du Euskal Herria plaza; izan ere, bertan El Gran Ballet Argentino taldearen saioa izango da ikusgai. Migel Angel Tapiak zuzentzen du musika eta dantza argentinarrak uztartzen dituen Argentinako folklore talde hau. Helburua Argentinako kultura zabaltzea da, aintzinako dantzaldiak «era ikusgarrian» antzezten dituztelarik. 1963an sortu zen El Gran Ballet Argentino eta ordutik munduko herrialdi ugari bisitatu dituzte, guztietan ere arrakasta handia lortuz.

ZINEMA

'Aupa Etxebeste'. Abuztuaren 8an izango da ikusgai *Aupa Etxebeste* filma, Amarozen auzoan. Komedia euskaldun honek etxebestetar familiarren joan-etorriak kontatzen ditu.

'Plan oculto'. Abuztuaren 9an, asteazkenarekin, *Plan oculto* filma aurkeztuko dute Amarozen. Denzel Washington, Clive Owen eta Jodie Foster aktoreek egiten dute lan filma estatubatuar honetan.

KIROLA ▶

Diru laguntzak eskatzeko epea, amaitzear

Tolosako kirol elkarte eta klubuen egiturak garatzeko diru laguntza arruntak eskatzeko epea hil honen 31n, astelehenarekin, bukatuko dela jakinarazi du Tolosako Udaleko Kirol sailak. Eranskinak behar izanez gero udal txeko kirol departamentuan eskuragarri daudela informatu dute.

GIZARTEA ▶

Harizpe elkarteak Laredora bidaia antolatu du

Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak Laredora (Espainia) bidaia antolatu du datorren abuztuaren 25erako. Txartelak salgai daude daogengoko elkartearen bertan, abuztuaren 23a bitarte. Bazkideek 29 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 32.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **ibarralde.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozenko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶



Puzgarriak umeen gozagarri

N. Lataburu ▶ Bi egunetz Tolosako Triangulo plaza umetxentzako gune bilakatu da. Izan ere, atzo puzgarriak atondu zituzten bertan —argazkian ikusten denez—, sarrera doakoa delarik. Puzgarriekin batera, tonbola bat ere ezarri dute plazan, non txartel batzuen truke sariak eskuratu ahal izango duten parte-hartzaileek. Lehen egunean umetxoez bete zen eta asko izan ziren jolasteko aukera izan zutenek. Atzo jolasgunean aritzeko aukera galdu zutenek gaur ere izango dute horretarako astia. N. L.

VILLABONA ▶ GARAGARDO AZOKA

Garagardo egarria asetzeko

Irrintzi elkartearen X. Garagardo Azoka etzi hasi eta igandera arte Txerminen

IMANOL GARCIA

Irrintzi elkartearen X. Garagardo Azoka bihar hasiko da. Igandera arte 22 garagardo mota dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Aurtengo berritasuna Oartzungo Pagoa garagardotegiko hiru motak dira: Orhi, Gorri eta Zunbeltz. Jatekoari dagokionez, gulak perretxikoekin dastatzeko aukera izango dute azokazaleek. 18:00etan irekiko dituzte ateak, eta 13:00ak inguruan itxi.

Aurten hamargarren edizioa bada ere, ez dute ezer berezirik prestatu. Ekitaldiak datorren irailetik aurrerako gordeko dituzte, aurten Irrintzik 25 urte egiten baititu. Liburuxka bat argitaratzeko asmoa dute, bertan egitaraua jarriz.

Garagardo Azoka bihar hasiko bada ere, aste gutzian dabil-tza antolatzaileak lanean. Irrintzi txirindularitzari lotutako elkartearen denez, Frantziako



Irrintzi elkartearen zenbait kide Garagardo Azokaren kartelarekin. i. g.

Tourrak badu eragina ere antolakuntzan. Arratsaldeetan 30 lagun inguru elkartzen dira prestaketa lanak egiteko, baina hori bai, Tourreko etapa amaitu ondoren. Azokak irauten duen egunetan 120 lagun inguru ari-

zaten dira lanean, hasi elkarte kideetatik eta beraien lagun eta familikoetara arte.

Urtero bezala, bidaia bat zozketatuko dute: Tenerifera aste-bete, bi pertsonentzako. Pitxerra erosterakoan txartela jaso-

MENUA ▶

Jatekoak. Salbitxa (Frankfurt eta Bratwüst), haragi pastela, gulak, entsalada alemaniarra, patatak *Navarrito* erara eta ukondoa.

Postrea. Idiazabalgo gazta tarta, sagardo tarta, Alustizako gazta eta mamiatzko tarta.

Garagardoak. San Miguel, San Miguel 1516, Mahou, Nostrum, San Miguel 0%, Kronenburg 1664, Calsberg, Foster's, Judas (botilan), Miller (botilan), Grimbergen Cuvee de L'Ermitage (botilan), Grimbergen Dubbel, Grimbergen Blond, Beamish, Mort Subite, Brugs, John Smith's, Maes, New Castle, Pagoa Ohri, Pagoa Gorri eta Pagoa Zunbeltz.

ko da, zenbaki batekin. Igandean, 21:30ak aldera, egingo dute bidaiaren zozketa.

AGUSTIN LASKURAIN ▶ GARAGARDO AZOKAKO KOORDINATZAILEA

«Ez dakit garagardoaren kulturak gora egin duen, baina gehiago edaten da»

Hasieratik antolakuntza sartuta dabil Agustin Laskurain (Villabona, 1959). Apiriletik hasten da kontaktuak egiten asteburu honetarako dena prest izateko.

Hamargarren azoka. Atzera begiratu eta zer ikusten duzu?

Gazteago eta ausartago ikusten dut neure burua. Bestalde, elkarte kideen arteko eztabaidak, horrelako azokak ez zirelako ezagutzen. Aurreratuak ginen garai horietan.

Beste azokarik bisitatu duzu?

Alemaniarra eta ez naiz joan, baina gertuko azokak ikusi ditut.

Zer aurreikuspen dituzue aurtengorako?

Urtero salmentak handitzen joan dira, baina iaz, goraka joan arren, ez zen igoera bestetan bezainbestekoa izan. Beste azokak ere egiten dira eskualdean, eta horrek eragina du. Salmentak mantentzea espero dugu.

Hainbeste azoka izanik, garagardoaren kulturak gora egin al du?

Ez dakit kulturak berak gora egin duen, baina lehen baina garagardo gehiago edaten da. Gazteek ardoa baino gehiago edaten dute garagardoa.

Botilan ala kainakoa?

Kainakoa hobe da, baina horretarako kaineroa puntuan egon behar du. Azoketan garagardo marken etxeetatik teknikoak etortzen dira dena ondo prestatzeko. Kaineroan garagardoaren mugimendua egon behar du, hondarrak ez gelditzeko, eta azoketan horrelako arazorik ez dago.



I. GARCIA

Gustuko garagardoa?

San Miguel Nostrum. Ez da garagadorik ezagunena, baina sekulako zaporea du eta oso erraz edaten da. ◀

IRURA ▶

Udalak ekintza plana osatzeko bilerara deitu du gaurko

Herritarrek datozen urtetarako ekintzak proposatzeko aukera izango dute

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak Tokiko Agenda 21 prozesuan aurrera jarraitzen du iraunkortasunaren bidea landuz. Diagnostiko baten bitartez herriaren egoera zein den ezagutu ondoren etorkizunera begira udalerrian martxan jartzea interesgarria izan daitezkeen ekintzak proposatzeko ordua iritsi da, Irurako Ekintza Plan batean jasoko direnak.

Diagnostikoa burutua dago eta ekintza plana osatzeko ekarpenak bildu eta hurrengo urtetarako ekintzak proposatzeko mahai-foroa antolatu da, bilera ireki bat. Gaur izango da, Ikastolako aretoan, 19:30ean. Bileran landuko den ekintza planaren zirriborroa udaletxean eskuragarri dago.

ADUNA ▶

Kutxako kajeroa udaletxeko aterpean

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak bando bidez jakinarazi du Kutxako kajeroa martxan jarria dela Adunako udaletxeko aterpean. Bertan, beste edozeinen kajerotan bezala, txartelarekin edota kartilarekin hainbat eragiketa egin daitezke.

hitza

Harpidedunen
txokoa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK
2 erosketa txartel zotz egingo ditu
bere harpidedunen artean,
Kilometroak 2006 dendetan erabiltzeko.

ZORTE ON!!



Denda finkoak:
OIAZTUNGU DENDA
San Esteban enparantza, 11-B / astean: 16:30-19:30 / larunbatetan: 10:00-13:00
ERRENTERIA-ORERETAKO DENDA
Herriko enparantza, 1 / astean: 17:00-20:00 / larunbatetan: 10:00-13:00 • 17:00-20:00
Denda ibiltariak: www.kilometroak.com/webgunean

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



Castro-Urdiales. Miren Ortegaren bi margolanetan ikus daitezke kostaldeko paisaiak, Alegiako erakusketan beti ere. Inpresionismoaren ezaugarriak argi asko ikus daitezke koadro honetan. N. URBIZU



Baserriak, zuhaitzak. Naturako paisaiak dira Alegiako jubilatuen tabernan ikus daitezkeenak. Ez da pertsonarik ikusten. Miren Ortegak kalean margotzen du, egin behar duena aurrean duela, hain zuzen. Horregatik, koadro batzuetan haizeak eragindako mugimendua nabaritzen erraza da. N. URBIZU



Beasaingo eliza. Badirudi leihoetik begiratu eta utzi daitezkeen hostoak direla. Pintzeladek margo asko jartzen dute mihisean. N. URBIZU



Idiazabal. Mihisetik urruntzen zoazen heinean zehatzagoak dira koadroak. Hurbilduz gero, margo multzo bat besterik ez da ikusten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Miren Ortega beasaindarrak Alegiako Jubilatuen tabernara paisaiak lantzen dituen koadroak eraman ditu. Paisaia ezagunak, paisaia hurbilak, baina askotan kasurik egiten ez diogun txokoari egindako erretratuak.

Artista honen hasierak ez ziren errazegiak izan, askorenak bezalakoa, alegia. Lehenengo oztupoa, «emakume izatea: ezin genuen ikastera joan, mutilek bezain erraz». Horrez gain, «Arte Ederrak ikasi nahi nuen, eta ez genituen ez baliabiderik ez eta aukerarik ere. Hori ikusita, lantegi batean lanean hasi nintzen, eta aukera izan nuen arte itxaron nuen».

Lana utzi zuenean serioago hasi zen margotzen, ez baitu inoiz hau utzi, baina Jose Mari Telleriarekin eta Jokin Telleriarekin ikasten hasi zen.

Beti, esan bezala, afizioz margotu izan du, baina mo-

mentu batean (margolanak pila hasten zaizkizu, eta leku behar izaten duzu dena gordetzeko. Jendeak ere galde egiten zuen koadroetaz, eta azkenik, erakusketetan hasi nintzen, baten bat saltzen...).

«Inspirazioa ez dago beti»

Miren Ortegak ez du inspirazioa pasatzen uzten. Momentu hori aprobetxatu egiten du, «ez baitago beti. Baina beti gustuko dudana margotzen dut, estiloaz kezkatu gabe. Ez dakit zein den nire estiloa, ezta beharrik ere: nik gustuko dudana margotzen dut, gehiago konplikatuta gabe».

Dena dela, estiloen artean, Inpresionismoa du gustukoan. Turner, Sorolla eta Zurbaran ere aipatzen ditu margolari maitatuen artean.

Abangoardiako margolartitza ez du gustuko. «ez baitut ulertzen, eta ez dit atentzioa deitzen ere».

Paisaia ezagunak, pintzel ezezagunekin

Miren Ortegak estiloari erreparatu gabe, gustoko duena margotzen du, aurrean duena ikusten duen bezala eginez

Olioia, akrilikoa, ikatza eta batzuetan pastela ere erabiltzen ditu, baina honako erakusketan olioia erabili du.

Marrazketa eta margotzea

Miren Ortegak oraindik ere txikitzen egiten zitueneko marrazkiak gordetzen ditu, «hori baitzen niri gustatzen zitzaidana: marraztea».

Margotzea, bere bizitzan egiten duen beste gauza bat da. Ez du inoiz utzi, eta «utziko banu, zerbait faltako litzaidake: jada

ohitura bat da, eta ez errutina. Nik gustuko dudalako egiten dut, ez dut beharrik egiten».

Uztaila osoan zehar izango da Alegiako Jubilatuen tabernan erakusketa; haizeak mugitutako uneak, iruditzen.



Nafarroa etorb, 13 behe - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna batean lan egiteko. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz tabernan lan egiteko. Tolosaldean.

Eskarmentatua. 635 74 52 91.
Haur zaintzailea. Emakumea behar da haurra zaintzeko Alegian. 615 00 32 02.

GIZARTEA ▶

Sahararrak hemen dira

15 saharar gaztetxo etorri dira uztaila eta abuztua eskuadean igarotzera



Hamabost saharar etorri dira aurten Tolosaldera uztaila eta abuztua bertan igarotzera. Batzuentzat estreinako aldia izan da. I. TERRADILLOS



Harrera beroa egin zieten errefuxiatuen kanpamentuetatik etorritako saharar gaztetxoei. Opariak ere jaso zituzten. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Urduritasunez eta irrikaz itxaron zuten atzo sahararren etorrera euren etxeetan hartuko dituzten Tolosaldeko herritarrek. Tolosako Emeterio Arrese parkean ziren elkartekoak etortzeko geratzen zirenak; izan ere, herenegun eta igandean etorri ziren lehenak. Emozioz beteriko uneak bizitu ziren iritsi zirenean, askorentzat urtebete igaro baita elkar ikusi zuten azken alditik; beste batzuek, berriz, haur hura lehen aldiz ikusteko sentsazio berezia izan zuten.

Hamabost gaztetxo etorri dira aurten uztaila eta abuztua Tolosaldean igarotzeko asmoz. Gehientzat ezaguna da gure eskualdea, bai eta hartuko dituzten familiak ere; beste batzuentzat, ordea, estreinako aldia da gurerara etortzen direna; izan ere, ohikoez gain, bost familia berrik eman dute aurten izena haur saharar bat hartzeko.

Bakoitza bere familiarekin joan aurretik. Txirrita liburu dendak emandako opariak banatu zizkieten gutziei. Irteerak, jolasak, festak... ekitaldi ugaz gozatzeko aukera izango dute, bai beraientzat, nahiz familiarentzat oso berezia izango den uda osoan zehar.

BERASTEGI ▶ GIZARTEA

Basurdek egoitza berria estreinatu du

Erredakzioa ▶ Basurde elkarteak estreinatu du egoitza berria. Pasa den astean izan zen inaugurazioa luncharekin, herriko apaizak bedeinkapena egin ostean. 82 bazkidez osaturiko elkarteak parrokoiko etxean du egoitza, eta eraberritzen aritu dira azken hilabeteotan. HITZA



iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarrerako baxleta, 4.000 m²ko lursailarekin, hiru solairurekin. Bakoitzak 120 m² ditu.
Andoain. Santa Kruz auzunea, 80m²ko bi etxebizitza erreformatuak,

kanpoaldera, igogailuarekin, eta bista ederrekin.

Andoain. 90m²ko etxebizitza eraberritua, sartzeko moduan, kanpoaldera eta eguzkitsua.

Baraibar. Borda 2.000 m²ko partzelan. Berritua.

Belautza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270m²ko lur eremuarekin.

Berastegi. Familia bakarrarentzako baxleta, 3.500 m²ko lur eremuarekin.

Donostia. Antigua, Eskolta Real.

Etxebizitza eraberritua, kanpoaldera.

Lizartza. 30.000 m²ko lursaila.

Bifamiliarra eraikitzeko aukera.

Nekazaritza utsiakuntzarekin.

Errioxa. Etxe abikiak, familia bakarrekoko eta etxebizitza ditugu, Errioxako zonalde desberdinetan, Logroño eta Najeratik gertu.

Irura. Laskibarreko zonaldea, hiru logelako etxebizitza, garajearekin, giltzak uztaila amaieran emango dira.

Tolosa. Zumalakarregi. 150 m²ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko azken apartamentua, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Pablo Gorosabel, logela

bakarreko apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.

Tolosa. Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza: egongela, sukaldea terrazarekin, bainugela, komuna eta garajea aukeran.

Tolosa. Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukalde, terraza, bainugela, komun, trasteleku eta garaje itxiarekin.

Tolosa. Araba etorbidean, 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, komuna, bainugela, terraza, trasteleku eta garajearekin.

Tolosa. Errementari kalean,

3 logelako atikoa, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 45m²ko lokal xarmanta, erakuslehi handiarekin.

Tolosa. Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erazgailuak 9.480 eurotatik.

Tolosa. Usabalen, 350 m²ko pabiloia, alokairuan abuztutik aurrera. Bi zubi garabirekin, bulego, bainugela eta abarrekin hornitua.

Tolosa. Gorosabel, 50m²ko bulegoa.

Tolosa. Maituna lokal zaharrean 15 garage itxi salgai aurki.

ARESO ▶ KIROLAK

600ekoari ez dio hasiera ona eman

Lehen saioan 5. egin du Aresoko sokatira taldeak; 15ean du hurrengo

JAIONE ASTIBIA

Hilaren 8an jokatu zuten Euskal Herriko Sokatira Txapelketan 600 kilotako aurreneko jardunaldia, eta Aresoko sokatira taldeak 3 puntu eskuratu zituen egunaren bukaeran, sailkapeneko bosgarren lekuan geldituz.

Goiherri A, Gaztedi A, Nuarbe eta Mutriku ere, aurretik dituzten nafarrak. Orden horretan, gainera, eta 7 puntutik beherakoan. «Ez ginen oso ongi aritu», baieztatu zioten atzokoan HITZARI: «Zozketan ere ez ginen zortetik izan», gai-

neratuz. Izan ere, Gaztedi, Goiherri, Nuarbe, hasieratik hiru indartsuenekin jarraian aritzea egokitu zitzaion Aresoko taldeari, eta ez zuen arnasberritzeko betarik izan.

Laukiztarrekin lehiatutako saioak gerorako eragina utzi zioten: «Gaztedirekin txukun hasi ginen: presioa ikaragarria zen, baina sokak gure aldera egiten zuten. Baina ez ginen baliu, presioari ezin etsia etorri zitzaigun eta haiek horretaz ohartu zirenean, indar kolpe gogorak jo zituzten eta guk ez ginen erantzuten asmatu», azaldu zuten aresoarrek. Le-



Areso taldea lanean, Gaztelun jokatu zen jardunaldian. N. LIZARTZA

hen tiraldiari zegokiona: «Ohartu ginen lana ez genuela ongi egin eta bueltako tiraldian zuzendu nahi izan genuen arren, ezin izan genuen. Betealdia handi samarra hartu baikenuen aurrenekoan, eta urduri ere jarri ginen eta, ez genuen asmatu». Gaztedirentzat izan ziren bi sokak. Eta handik aurrerako indarrak berreskuratzetik gabe, Goiherri eta Nuarbe izan zituzten hurrengo lehiakideak: «Nekatuta gelditu ginen lehendabiziko tiralditik, pultsurik gabe», zioten. Zorua

gogorra, «ona», eta «erresistentziaren orde, pultsua eta presioa eskatzen zuena» zegoela azaldu zuten. Gaztedik halako taldea atera omen zuten, «ahalik eta handiena», goiherriaren tankeran, eta hala joan ziren beste biak ere; Mutrikurekin, soka bana irabazita, berdin; eta bi B taldeekin, Aresoarentzat izan ziren puntuak.

«Oso triste eta jota» gelditu zirela aitortu zuten Aresokoek, «ez zen arratsalde txukuna izan», gaineratuz. Sokan aritu ziren tiralariek, Sagastibeltza,

SAILKAPENA ▶

600 KILOKO 1.GO SAIOA

Taldeak	puntuak
1. Goiherri A	7 p.
2. Gaztedi A	6 p.
3. Nuarbe	5 p.
4. Mutriku	4 p.
5. Areso	3 p.
6. Goiherri B	1,5 p.
7. Gaztedi B	1,5 p.

Jon, Jabier eta Lander Otermin, Sukuntza, P. Baraibar, Artola eta Arraras izan ziren; Sagastibeltzaren orde Ardeo sartu zelarik aldaketa bakarrean.

Hala ere itxaropentsu

«Buelta ematen zail samarra» dagoela iritzi arren, oraindik koska bat edo beste igo dezaketzen ustea dute, orde: «Hirugarren batera iritsiko gara», zioten. Prestaketekin oso gustura ari dira lanean, taldekide guztiak batera, eta «hobetu dezakegu». Animo horiekin joanen dira larunbat honetan, hilaren 15ean, Debako Lasturren 17:00etatik aurrera jokatu duten 2. jardunaldira.

LEITZA ▶ INGURUMENA

Erasote errekan hildako amuarrainak agertu dira haztegitik beherantz

Atzo goizean zehar haztegitik langileak aritu ziren jasotzen

J. ASTIBIA


Atzo goizean Erasote errekan, Areko Zubitik gora eta behera, hildako amuarrainak agertu ziren. Errekan behera, parkearen pareta baino beheraxeagora iristen zirelarik, gorantz, amuarrain haztegitiraino zeuden. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, bertan egiaztatu ahal izan zenez, goizean zehar amuarrain haztegitiko langileak aritu ziren, Erasote errekan

agertutako hildako amuarrainak jasotzen. Zaku baten hirutatik bat inguru beteta zutela ikus zitekeen.

Auzotarrek ohartarazi eta lekuan bertan ere errekan bilke-ta egiten ari zirenei erreparoa zeudelarik, «goizean gehiago zeuden askoz ere». Han egiaztatu ahal izan zenez, hildako amuarrainak haztegiaren paretik behera zeuden; gora ez zegoen alerik. Kasu honetan, bertako lekukoek adierazi zu-

tenez, gainera, «ez zuten deus berezirik nabaritu han».

Arratsalde arte, HIRZA haztegitiko arduradunekin harremanetan jartzen saiatu bazen ere ez zuten beraien argibiderik lortzerik izan. Bestalde, administrazioan gertakariaren berri eman eta kontsultatutako iturrietatik jakindu zenez, dirudienek, «haztegiaren bertan gaezan [asteleheneetik astearterakoaz] amuarrain mordoa hil omen zaizkie arazoren bat



Atzo Erasote errekan ageri ziren amuarrainak tripaz gora, hilda. J. A.

izanda eta goizean horretaz jabetu direnean, garbiketakoan, zenbait alek ihes egin omen diete», azaldu zuten atzo: «Ingurumeneko arduradunak ja-

kinaren gainean» omen zeuden geratutakoaz eta «haiekin hala geldituta» jaso omen zituzten hildako amuarrainak haztegitikoe.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

urteurrena ▶



Jose Luis Esnaola Agirregabiria



Urtebeteko hegaldian, zu gure ehiztari.

Beti maiteko zaitugu.

Maribi, Aitziber eta Iratxe

oharra ▶ meza uztailearen 16an izango da, igandean, 12:00etan, San Pelaioko elizan.

ZARAUZ, 2006ko uztailearen 12a

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 12a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez arratsaldez

beroena

20

hotzena

19

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur Alegia, Aliza, Alza, Arretxola, Anosta, Areso, Areso, Beloran, Belaritz, Berrog, Berrog, Ekain, Gortzi, Itana, Itzategieta, Irua, Leaburu, Leiza, Lizartza, Oreta, Tolosa, Villabona, Zuzail

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurerria. Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irua. Agenda 21 egitasmoari buruzko bilera, ekintza plana eztabaidatzeko. 19:30etan, Ikastolako aretoan.
Tolosa. Ahotsak ekimenaren aurkezpena eta mahai-ingurua. 20:00etan, Kultur Etxean.
Tolosa. Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia bizikletaz izango da larunbatean, hilak 15, Triangulotik 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, Txiki tabernan (15 euro).
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07 ikasturterako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan (Igaralde), 17:00etik 20:00etara bitartean.
Tolosa. Andorrara mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari kalea, 5. 943 65 27 89).
Tolosa. Iturritza jubilatutako elkarteak Bizkaiko kostalderra irteera antolatu du abuztuaren 3rako, 25 eurotan (bazkide ez direnak, 27 euro). Izen-ematea, elkartearen.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longoran eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaeren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. Iraulitxekin.
21:00-22:00. Bide okerretik.
22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Sanjoanetarako zapi urdin guztiak agortu ziren

TOLOSA ▶ Sanjoanek zapi urdinez jantzi nahi zituzten herriko hainbat eragilek, eta «ekimena benetan arrakastatsua» dela azaldu dute balantzea egiterakoan: «Zapi guztiak saldu ziren, eta zuriz jantzi ziren tolosarrei festan parte-hartze zuzenagoa izateko aukera eskaini zien. Jai desberdina, herrikiogagoa egitea guztion esku dagoela erakutsi zuen». Bildutako dirua datorren urtean zapi gehiago erosteko erabiliko dute. Lizardi, Gure Kaiola, Sukalde, Gure Txokoa eta Kabi

Alai elkarteek sustatu dute proiektua. Bestelako laguntzaileei ere «eskerrak» eman nahi dizkiete: Mauka, MG eta Berezi arropa dendak, Pirulos goxoki denda, La huerta del pais fruitu denda, Iberia eta Lautrek bidaiak, Xirimiri txokolategia, Amaia mihieste denda, Maria Belen drogeria, Kiara bitxidenda, Amiano jostailu denda, Zunbeltz, Sukia harategia, B. Collada lurrindegia, Josune eta Mendi ilepaindegia, Alde Zaharreko ostalariak eta buruhandi eta erraldoien konpartsa. HITZA

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
hitza
agurren tartea

badugu GILTZA, badugu HITZA
hitza
Giltza entregatzeko lekuak.
▶ ANOETA Izarti Txokolategia
▶ IRURA Amets estankoa
▶ VILLABONA Larrea kafetegia
▶ LEITZA HITZAren egoitza
▶ TOLOSA HITZAren egoitza
▶ ALEGIA jubilatuen taberna

EUSKAL JAIA
BILLABONA 2006
Uztailak 29 Larunbata
18:30etan Sagardo sasoaketa proiektuaren inaugurazioa
19:00etan ETXERAKOIA
Aizakaren Anaiak & Juan Mari Beltran
21:00etan Alai herriko plazan... Ziklo Jaia
22:00etan ETXERAKOIA, Tapia eta Lizarra
Garaiko euskal jantzielkin parte hartzera animatzen zaituztegu
Ziklo jantzerako txartelak salgai ondoko lekualdean (20€)